

# Uxue Garmendia Mendizabal

**B** maila • 1 saria

Ni Uxue Garmendia Mendizabal naiz. Zaldibiako Miranda baserrian bizi naiz eta 15 urte ditut. Nire bertsotako zaletasun hau nire amona Iñaxirengandik datorkit. Hainbat une goxo izan nituen berarekin, sukaldeko ekonomika ondoan jarri eta bertsotan aritzen ginen. Nire denbora librean, zaldi gainean ibiltzea eta nire behorrak ikustera Aralar mendira joatea gustatzen zait. Animaliak oso gustuko ditut. Parranda egitea ere asko gustatzen zait.



Doinua: Minberatu zaizkigu

## BASERRITARRA ETA KALEKUMEA

1.  
Baserritarra naiz ni  
askotan jakintsu  
baserrian ibiltzen  
naiz oso gogotsu  
kalekumeak dira  
beti oso itsu  
zu kalekume ahula  
eta ni indartsu.

2.  
Kalekumea naiz ni  
ez baserritarra  
arrazoia daukazu  
zuk duzu indarra  
baina ze uste duzu  
ni ez naiz alferra  
gainera ez daukazu  
nire irrifarra.

3.  
Zuk irrifar polita  
eta nik zozoa  
baina izango duzu  
nonahi arazoa  
ni serio lanean  
ta zu martxosoa  
golfoarena egiten  
bizitza osoa.

4.  
Goizeko seietako  
Ikuiluan hasi  
egun osoan lanen  
ezin joan ihesi  
zertarako hainbeste  
lur, soro ta sasi  
hobe ezer ez izan  
eta pozik bizi.

5.

Ni soroan lanean  
idi pareakin  
zu ordea kalean  
zerbeza batekin  
soron belarra dago  
itxura txarrakin  
ta zu kalean zabiltz  
lotsa gutxirekin.

6.

Etxera iritsita  
goseak akatzen  
jana nundik datorren  
hasi naiz pentsatzen  
sorotik datorrela  
ai naiz kontuatzen  
gure baserritarra  
hain tontoa ez zen.